



Poliziak Jarraiko militanteak banan banan identifikatu zituen. X. SIMAL

Poliziak Jarrairen V Kongresua indarrez eragotzi zuen Bilbon

Z. ZAMAKOLA / BILBO

Inongo epaileren agindu barik Polizia Nazionaleko indarrek Jarrairen V Kongresua lehertarazi zuten atzo Bilbon. Poliziak bilera geldiarazi eta banan banan identifikatu eta kaleratu zituen bostehun partaideak. Ondoren, ekintzaren zergatia azaldu barik eta epailea heldu baino lehen alde egin zuten.

Jarraik sekretupean gordeta zeukan Kongresua non eta noiz egingo zuen, aurreko Kongresutik irteetan Goardia Zibilak denak geldiarazi eta identifikatu bait zituen.

Eguerdiko hamabi t'erdia aldean, KASeko gazte erakundeko bilera hasi eta ordu bete ingurura, Polizia Nazionaleko sei furgonetak eta hamar auto kamuflatuk Txurdinaga auzoko Gabriel Aresti institutua inguratu zuten.

Ikastetxea itxita zegoenez, poliziak ate bat indarrez zabaltu zuen eta Kongresuan zeuden bostehun gazteei kaleratzeko agindu zien. «Bilera izkutukoa zela eta kaleratu ezean 'egurtu' egingo gintuztela esan ziguten», azaldu zuen geroago Jarraiko partaide batek.

Mikel Zubimendi eta Joseba Kamio Jarraiko ordezkariak poliziei hurreratu zitzaizkien, abokatua heldu arte ez zirela kaleratuko esanez. Poliziak, orduan, porra kolpeka kaleratu eta atxilotuta Indautxuko komisaldegira eroan zituen.

Ondoren, arratsaldeko laurak arte luzatuko zen tantaketa hasi zen, bostehun gazteak banan-banan arakatu eta identifikatu bait zituen poliziak. Amaitu zutenean, poliziek beste barik alde egin zuten.

Jarraiko partaideek Kongresua atzeratzea erabaki zuten, «kongresua egin egingo da», iragarritan.

SALAKETA GOARDIAKO EPAITEGIAN Arratsaldean gazteak Indautxuko komisaldegira aurtean bildu ziren, kideen askatasuna eskatzeko. Poliziak kargatu egin zuen eta atxilotetak egin zituen, Jarraiko iturriek aditzera eman zuten hogeiren bat gazte

atxilotuak izen zirelarik.

Poliziek inongo epaileren baitarik ez zeukatenez, Goardiako epaitegian salaketa ezarri zuten Txurdinagara hurreratu ziren HBko hautetsiek, G. Aresti institutuko zuzendaria lagun zutela, Jarraik egoitza egoteko baitena zeukatela baiezteko. Halere, epailea institutua heldu aurretik dena amaituta zegoen.

Izan ere, gertatuaren berri jakin ahala HBko hautetsiak hurbilduz joan bait ziren. Besteak beste Gasteizko Legebiltzarreko itxialditik horretarako irten zuten Tasio Erkizia eta Jose Mari Elosua parlamentariak, Jose Ramon Etxebarria batzarkidea eta Koldo Celestino zinegotzia.

Lehenengo balorazio moduan, Jarraiko partaideek «gazte mugimendu osoari egindako erasotzat» jo zuten atzo gertatutakoa, eta «biltzeko eskubidearen kontrako eraso garbia» izan zela eritzi zion. Gazte guztiak fitxatzeak gero ondorioak ekar diezazkiekeela gogorarazi ostean «zer demokrazia ote da hau?», galdetu zuten.

Salto del Negroko presoan alde manifestazioak izan ziren atzo

DONOSTIA

Salto del Negroko espetxean bigarren aldiz gose greban dauden euskal presoan egoera salatzeko manifestazioak egin ziren atzo Donostian, Bilbon, Tuteran, Tafallan eta Etxarri Aranatzan.

Donostiako manifestazioa arratsaldeko seiak laurden gutxitan abiatu zen Boulevardetik eta bertan amaitu zen ordu bete beranduago. Bildutako bi mila lagunek PSOE eta EAJren aurkako oihuak bota zituzten eta euskal preso politikoei espetxeetan bizi duten egoera salatu, inolako isturirik sortu gabe. Konzentrazioaren amaiera AABBetako ordezkariak komunikatu bat irakurri eta Salto del Negroko gartzelan dauden presoekiko elkartasuna eskatu zuten.

Bilbo, Tuter, Tafalla eta Etxarri Aranatzeko mobilizazioak gauerako zeuden deituta

Hamar lagun atxilotu ditu Goardia Zibilak Gipuzkoan eta Bizkaian

ETako komando bat atzeman dutela dio gobernadore zibilak

Hamar lagun atxilotu zituen atzo Goardia Zibilak Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbait lekutan. Horietako lauri ETako komando bat osatzea eta bosti komando horren laguntzaile izatea leporatu die Gipuzkoako gobernadore zibilak. Atxilotuak Madrilera eramane zituzten.

DONOSTIA

Operazio poliziala Donostia, Irun, Hondarribia eta Portugaleten gertatu zen atzo goizaldean. Francisco Rollan Rodriguez, Juan Victor Rollan Rodriguez, Anselmo Olmo Arbelaiz eta Bittor Valderrama Iglesias Donostiako Bidebieta auzoko etxe batean atxilotu zituzten eta ETako komando bateko partaide liberatuak izatea leporatzen die Gipuzkoako Gobernu Zibilak. Hauekin batera, Rodolfo Cuesta Trula, pisuaren jabea atxilotu zuten.

Hondarribian Josetxo Latasa Getaria atxilotu zuten bere etxean komandoari laguntza ematearen akusaziopean. Gauza bera leporatzen diote Irunen lanetik etxera zihoanean harrapatutako Alberto Cabezas Blancori. Irunen bertan Carlos Bailon Almandoz hartu eta eramane zuten Antiguoko komisaldegira baina kargurik gabe utzi zuten libre ordu batzu beranduago. Latasa LABko kidea da eta sindikatuko Idazkaritza Nazionalak atxiloteta salatu egin zuen agiri baten bidez. Garbiñe Villasante Arze eta



Goardia Zibilak ustezko «Askatu» taldeari hartutako materialeak. EFE

Angel Sanchez del Arco senar-emazteak Portugaleten atxilotu zituzten. Emakumea haurdun dago eta bere familia behar diren gestioak egiten ari da Habeas Corpus eman diezaioten.

Donostiako etxean bi pistola Browning, bi kargadore, muni-zioa eta zenbait nortasun agiri faltu atzeman zituen Goardia Zibilak, eta Hondarribiakoan hiru eskopeta, karabina bat, muni-zioa, ordenagailu bat eta larogei diskette.

Bestalde, Fernando Cuerda Rodriguez 23 urteko gaztea atzo eguerdian Erreterian atxilotu zuten paisanoz jantzita zeuden zenbait agentek, AABBek ohar baten bidez jakitera eman zutenez.

BIDARTEKO OPERAZIOA ETA IHESA Iturri. polizialen arabera, talde hau Txelis ETako ustezko buruzagiak «pertsonal-

ki» antolatu zuen Ocañako (Toledo) gartzelan dauden zenbait preso askatzeko helburuarekin. Fermin Latasa, Juan Carlos Balderi eta Etxebarria Goikoetxea lirake komando honek askatuko lituzkeenak, atzo Jose Maria Gurrutxaga Gipuzkoako Gobernadore Zibilak operazio honen zehaztasunak azaltzeko emaniko prentsaurrekoan esan zuenez.

Gurrutxagak garrantzia handia eman zien atxiloteteki «Bidarten hasitako Artapalo operazioaren bukaera bait da». Bere esanetan, Carmen Gisasolaren atxilotetaren ondoren Francisco Rollanek eta Anselmo Olmok etxetik ihes egin zutela jakin zuen Goardia Zibilak konfidente baten bidez. Beranduago bi gazte hauek Txelisekin harremanetan sartu zirela ezagutu zuten eta horrek «ETAko buruzagitza atxilotzera eramango gintuen hari onari hel-tzea» ahalbiderratu zuen.



Salto del Negroko presoan aldeko Donostiako manifestazioa. A. GILLENIA

tasuna erakustea da» eta zuzendaritzaren pean ez dauden medikuen laguntza eskatzen dute.

Honen ildotik, Gasteizko Parlamentuan itxita dauden Herri Batasunako eledun, zinegotzi, alkate eta parlamentariak Giza Eskubideen aldeko jarrera aktiboa har dezaten eskatu diete eus-

kal alderdi politikoei, atzo zabal-dutako ohar batean.

Herri Batasunako ordezkari-tza bat Eusko Alkartasunako ordezkariekin bildu zen herenegun Salto del Negroko espetxe euskal presoan egoera larriaren aurrean jarrera amankomuna hartzeko.